Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
P3132500D
Tel: 012; 94813 22 22

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa-Navarra
ansoain@ansoain.es

| DEIALDIA, 2022 IKASTURTEKO EUSKARAZKO UDAKO KANPALDIETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO | CONVOCATORIA DE AYUDAS ECONÓMICAS PARA CAMPAMENTOS DE VERANO EN EUSKERA CURSO 2022 |
|---|---|
| Antsoaingo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, 2022ko ikasturterako euskarazko udalekuetarako dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onartu zituen. Hona hemen deialdiaren testua: | La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Ansoáin, en sesión celebrada el día 16 de mayo de 2022 aprobó las bases de la convocatoria para la concesión de ayudas económicas para campamentos de verano en euskera para el curso 2022, cuyo texto se transcribe a continuación. |
| Lehena.–Deialdiaren xedea. | Primera. - Objeto de la convocatoria. |
| 1.1. Deialdi honek arautzen dituen diru-laguntzen xedea da hein batean finantzatzea D ereduko ikasleendako antolatzen diren euskarazko kanpaldietan parte hartzea; horietan edukiak ludikoak, kirol arlokoak eta/edo naturarekikoak izanen dira. Laguntza horiek kontu-sail honen kargura ordainduko dira: 1-33500-4820003, 2022an udako euskarazko kanpaldietara joateko dirulaguntzak. Xede horretarako 7.000 euro izanen dira gehienez. | 1.1. Las subvenciones que regula la presente convocatoria tienen por objeto financiar, en parte, los gastos que origina la participación en campamentos de euskera, organizados para alumnado de modelo D, que proponen contenidos lúdicos, deportivos y/o de relación con la naturaleza. Estas ayudas se abonarán con cargo a la partida presupuestaria 1-33500-4820003 subvenciones a campamentos de verano en euskera del año 2022. Se destina a este objetivo un máximo de 7.000 euros. |
| 1.2. Deialdi honetatik kanpo daude: | 1.2. Quedan excluidos de esta convocatoria: |
| a) Zuzenean nahiz zeharka Antsoaingo Udalaren bitartez kudeatzean direnak, edo diruz laguntzen dituenak, dirulaguntzaren ondorioz kuota jadanik murriztua izan behar baita. | a) Los gestionados directa o indirectamente a través del Ayuntamiento de Ansoáin, o bien subvencionados por éste, al llevar estos ya deducida la subvención en la cuota. |
| b) Txangoak edo bidaiak. | b) Las excursiones o viajes. |
| c) Herrian edo herritik hurbil gauzatzen diren bertze jarduera batzuk, barnetegirik behar ez dutenak. | c) Otras actividades que se desarrollen en la localidad o zonas próximas y no requieran un régimen de internado. |
| d) Salbuespenez, eta baldintza bat edo gehiago ezinbertzean betetzen ez badira, konparaziorako, adingabearen eritasun kronikoaren edo desgaitasunaren ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabakitzen ahalko du diru-aguntzarako proposamena onartzea | d) En casos excepcionales y cuando el incumplimiento de uno o varios requisitos sean por causa de fuerza mayor, por ejemplo, enfermedad crónica o discapacidad del menor, la Junta de Gobierno Local podrá determinar la |

| | |
|---|---|
| edo ezestea. | admisión o denegación de la citada propuesta de subvención. |
| **Bigarrena**. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak. | Segunda. - Requisitos para solicitar la subvención. |
| Udako kanpaldietara joan diren D ereduko LHko edo DBHko ikasleen guraso edo legezko tutoreek eskatzen ahalko dute deialdi honetan arautzen den dirulaguntza, baldintza hauek betetzen dituztelarik: | Los padres, madres, tutores o tutoras legales que tengan a su cargo estudiantes de EP o ESO del modelo D, que hayan acudido a los campamentos de verano, podrán solicitar la subvención regulada en esta convocatoria cuando cumplan los siguientes requisitos: |
| a) Eguneratuak dituztelarik Antsoaingo Udalarekiko betebeharrak, zerga arlokoak nahiz zergaz kanpokoak. | a) Estar al corriente del pago de las obligaciones tributarias y no tributarias con el Ayuntamiento de Ansoáin. |
| b) Kanpaleku horietara joan direnek Antsoaingo udalerrian erroldaturik egon behar dute, gehienez ere urtebeteko antzinatasun jarraituarekin, laguntza eskaera egiten den egunetik hasita. | b) Las personas que hayan acudido a dichos campamentos deberán estar empadronadas en el municipio de Ansoáin con una antigüedad mínima y continuada de 1 año a contar desde la fecha de solicitud de la ayuda. |
| **Hirugarrena**. Diruz laguntzen ahal diren gastuak. | Tercera. - Gastos subvencionables. |
| 3.1. Diruz lagunduko dira D ereduko ikasleendako antolatzen diren euskarazko kanpaldiak, hau da, kanpoan egiten diren egonaldiak. | 3.1. Se subvencionarán los campamentos en euskera organizados para alumnado de modelo D, es decir, estancias fuera. |
| 3.2. Parte-hartzaile bakoitzeko kanpaldi bat baizik ez da diruz lagunduko. | 3.2. Únicamente se subvencionará 1 campamento por participante. |
| 3.3. Kanpaldiak 5 egun iraun behar du gutienez eta 15 egun gehienez, eta udako oporraldian eginen da, hau da, ekainaren 20tik irailaren 10a bitarte. | 3.3. La duración del campamento no será inferior a 5 días ni superior a 15 días, y se llevará a cabo durante el periodo vacacional de verano (20 de junio al 10 de septiembre). |
| **Laugarrena**. Eskabideak aurkezteko tokia eta epea. | Cuarta. - Plazo y lugar de presentación de solicitudes. |
| 4.1. Eskaerak 2022 irailaren 1etik 30era bitartean aurkeztuko dira, eskabide sinatu baten bitartez; horrek bat etorri beharko du deialdiarekin batera argitaratzen den eredu normalizatuarekin. Deialdiaren borzgarren oinarrian zehazten diren agiri eta argibideak aurkeztuko dira eskabidearekin batera. | 4.1. Las solicitudes se presentarán entre el 1 y el 30 de septiembre de 2022, mediante instancia firmada que deberá ajustarse al modelo normalizado que acompaña a la convocatoria. A las solicitudes se acompañarán los documentos e informaciones establecidos en la base quinta de la presente convocatoria. |
| 4.2. Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu. | 4.2. El plazo de presentación de solicitudes será improrrogable. |
| 4.3. Aurkeztutako eskaerak ez baditu betetzen deialdi honetan ezartzen diren betekizun eta agiriak, interesdunari eskatuko zaio akatsa gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean | 4.3. Si la solicitud presentada no reuniese los requisitos y documentación establecidos en ésta convocatoria, se |

zuzen dezala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela; betiere aitzinetik ebazpena emanen da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71. artikuluak aurreikusiarekin bat.

4.4. Eskaerak honako bide hauetatik edozein erabiliz aurkeztuko dira:

-Modu telematikoan, udalaren egoitza elektronikoaren bidez: https://sedeelectronica.ansoain.es

-Aurrez aurre, Antsoaingo Udalaren bulegoetan (Udaletxeko Plaza 1, Antsoain) astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara

**Borzgarrena.** Eskaerari erantsi beharreko dokumentu eta argibideak.

5.1. Eskabideei dokumentazio hau erantsi beharko zaie:

a) Udalekua antolatzen duen entitateak izenpeturiko dokumentua, non hari buruzko baldintzak –euskarari emandako tratamendua eta helburu linguistikoak, iraupen datak, jardueren egitaraua edo liburuxka, prezioa- eta asistentzia egiaztagiria azaldu behar diren (parte-hartzailearen izen-abizenekin).

b) Matrikularen ordainagiria (banketxeak egina), matrikularen %100 ordaindua dagoela dioena. Banku entitateak eginiko agiriak besterik ez dira onartuko. Agiriak argi adierazi behar du nor den ordainketaren agindu-emailea, empresa onuraduna eta ordainketaren kontzeptua.

**Seigarrena.** Eskaeren balorazioa.

6.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa ordaindu den kuotaren %40 izanen da gehienez; ez da 125 euro baino gehiago izanen. Ehuneko hori tikiagoa izanen da aurrekontuan dagoen diruak edo eskatzaile kopuruak horretara behartzen badu.

6.2. Eskaerak urte baterako izanen dira, eta laguntzak emateko baldintza da eskaera egiten den ekitaldi ekonomikoan Udalaren aurrekontuetan dirua izatea.

requerirá a la persona interesada para que lo subsane en el plazo máximo e improrrogable de diez días, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 71 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.4. Las solicitudes se presentarán por cualquiera de los siguientes medios:

-De forma telemática a través de la sede electrónica municipal https://sedeelectronica.ansoain.es
- De forma presencial, en las oficinas del Ayuntamiento de Ansoáin (Plaza Consistorial 1, de Ansoáin) en horario de lunes a viernes de 8:30 a 14:00 horas

Quinta. - Documentos e informaciones que deben acompañarse a la solicitud.

5.1. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

a) Certificado de la entidad organizadora del campamento en el que se detallarán las condiciones del mismo –tratamiento dado al euskera y objetivos lingüísticos, fechas de

duración, folleto o programa de las actividades- así como un certificado de asistencia (con nombre y apellidos del o de la participante).

b) Recibo del pago de la matrícula expedido por la entidad bancaria, en el que constará pagado el 100% de la cuota. No se aceptarán documentos de pago no expedidos por la entidad bancaria. El documento deberá mostrar claramente quién es la persona ordenante del pago, la empresa beneficiaria, así como el concepto del pago.

Sexta. - Valoración de las solicitudes.

6.1. La cuantía económica de la subvención será de un máximo del 40 % de la cuota

abonada, dicha cantidad no superará los 125 euros. El citado porcentaje podrá ser

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica https://sedeelectronica.ansoain.es
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da:https://sedeelectronica.ansoain.es/eu/
0018831105422138991084

**Zazpigarrena.** Eskaerak aztertu eta ebaztea.

7.1. Deialdi honetan aurkezten diren eskaerak Euskara Zerbitzuaren bidez baloratuko dira; honek, hain zuzen, ofizioz gauzatuko ditu ebazpen proposamena emateko kontuan hartzen diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko behar diren jarduketak.

7.2. Dirulaguntzak emateko erabakia Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko du.

**Zortzigarrena.** Ebazteko epea.

8.1. Ebazteko epea gehienez ere bi hilabete izanen da, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita.

8.2. Epe horretan ebazpen espresik ematen ez bada, eskaera ezetsitzat joko du eskatzaileak.

**Bederatzigarrena.** Laguntzen ordainketa.

9.1. Onartutako zenbatekoaren ordainketa gehienez ere hilabeteko epean eginen da, deialdia ebatzi eta biharamunetik hasita.

**Hamargarrena.** Jakinarazteko edo argitaratzeko bideak.

10.1. Deialdi honi dagozkion komunikazioak eta jakinarazpenak posta elektroniko bidez egin ahal izanen dira. Dirulaguntzak emateko ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie.

10.2. Laguntza emateko ebazpena parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie, honako hauek adierazita: deialdia, dagozkion aurrekontuaren kreditua eta programa, erakunde onuraduna, ematen den diru-kopurua eta dirulaguntzaren xedea. Hori guztia Antsoaingo Herriko Etxeko iragarki oholean jarriko da ikusgai.

10.3. Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren kontra, hautara, errekurtso hauetakoren bat para daiteke:

a) Berraztertzeko errekurtsoa, deialdia egin duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta

inferior si la disponibilidad presupuestaria o el número de personas solicitantes lo justifican.

6.2. La solicitud de las mismas tendrá carácter anual, quedando condicionada su concesión en cada momento, a las disponibilidades presupuestarias del Ayuntamiento en el ejercicio económico en que se solicite.

Séptima. - Estudio y resolución de solicitudes.

7.1. Las solicitudes presentadas serán valoradas por el Servicio de Euskera, quien realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

7.2. La concesión de subvenciones se realizará mediante acuerdo de Junta de Gobierno

Local.

Octava. - Plazo de resolución.

8.1. El plazo máximo de resolución no podrá exceder de dos meses, a computar a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

8.2. Transcurrido ese plazo sin que haya resolución expresa, la persona solicitante podrá entender desestimada su solicitud.

Novena. - Abono de las ayudas.

9.1. El abono de la cuantía concedida se realizará en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la fecha de resolución de las subvenciones.

Décima. - Medio de notificación o publicación.

10.1. Las comunicaciones y notificaciones relativas a estas convocatorias podrán ser realizadas a través de correo electrónico.

La resolución de concesión será notificada a las personas solicitantes.

10.2. La resolución de la concesión será notificada a todas las personas participantes, con expresión de la convocatoria, el programa y crédito

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica https://sedeelectronica.ansoain.es
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da:https://sedeelectronica.ansoain.es/eu/
0018831105422138991084

| | |
|---|---|
| biharamunetik aitzina.<br><br>b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina.<br><br>c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina. | presupuestario al que se impute, persona beneficiaria, cantidad concedida y finalidad de la subvención, y se publicará en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento de Ansoáin.<br><br>10.3. Contra dicha resolución, que pondrá fin a la vía administrativa, cabrá interponer optativamente uno de los siguientes recursos:<br><br>a) Recurso de Reposición ante el mismo órgano autor del acto en el plazo de un mes<br><br>contado a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución.<br><br>b) Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado o la Sala de lo Contencioso-Administrativo de Navarra, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de notificación de esta resolución.<br><br>c) Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra dentro del mes siguiente a la fecha de notificación de esta resolución.” |

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica https://sedeelectronica.ansoain.es
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da:https://sedeelectronica.ansoain.es/eu/

0018831105422138991084